



**Nafarroako Herri Kirol Federazioa**  
Gindal Ibiltokia, 1 – Behea 31791 SUNBILLA  
Tel: 948 450900 / 622 368428  
[www.herrikirolaknafarroa.org](http://www.herrikirolaknafarroa.org)

# GURE SOKATIRA TALDEAK MUNDUKO TXAPELKETAN NABARMENDU DIRA

Euskal Herriko ordezkariak Suedian jokaturiko munduko txapelketan

Otsailaren 8tik 11ra, **2024ko Munduko goma gaineko Indoor Sokatira Txapelketa** egin da Helsinborg (Suedia). Euskal Herriko ordezkariak **24 domina** lortu ditu guztira.

Egun horietan, **selekzioen arteko** norgehiagoka eta **kluben arteko lehiaketa** jokatu dira hainbat kategoriatan.

Guztira **15 selekzio lehiatu dira**: Azerbaijan, Basque Country, Txina, Txina Hong Kong, Txina Taipei, Eskoziak, Estatu Batuak, Frantzia, Irlanda, Ipar Irlanda, Italia, Letonia, Herbehereak, Suedia eta Ukraina.

Parte hartu duten **21 klubetatik** 5 Basque Country Federaziokoak dira (Abadiño, Antsoain, Berriozar, Beti Gazte eta Ibarra), eta txapelketan parte hartu duten lurraldeak izan dira.

**Kluben arteko txapelketan 12 kategoriatan egon da lehia, selekzioen arteko txapelketan, ordea, 9 kategoriatan.** Kategoriak adinaren (absolutua, 23 urtez beheitikoak eta juniorrak), pisuaren (640 kg, 600 kg, 580 kg, 560 kg, 540 kg, 520 kg, 500 kg eta 480 kg) eta sexuaren arabera (femeninoa, maskulinoa eta mistoa) izaten dira.

## Talde nafarrak

**Talde nafarrak modu honetan osatu dira:**

- Antsoaingo taldea 27 kirolariz osatua egon da, horietatik 12 emakume (1 Amaiurko taldekoa) eta 15 gizon (2 Amaiurko taldekoak).
- Berriozarko taldea 21 kirolariz osatua egon da, horietatik 12 emakume (1 Beti-Gaztekoa) eta 9 gizon (1 Amaiurko taldekoa).
- Beti-Gazte taldean 22 kirolarik parte hartu dute, 9 emakume eta 13 gizon.

Datuetatik ondorioztatzen ahal da gure taldeetan emakumeen eta gizonen parte-hartzea oso orekatua dela, kontuan hartuta Nafarroako taldeen artean **kirolarien %47 emakumeak direla**.

Oreka horretaz gain, nabarmentzekoa da Nafarroako taldeek adin guztietako lehiaketetan parte hartu dutela, **eta 12 lehiaketetatik 11tan jaso dutela domina**.



**Nafarroako Herri Kirol Federazioa**  
Gindal Ibiltokia, 1 – Behea 31791 SUNBILLA  
Tel: 948 450900 / 622 368428  
[www.herrikirolaknafarroa.org](http://www.herrikirolaknafarroa.org)

Euskal Herriko selekzioko taldeak modu honetan osatu dira:

- Talde absolutuak Beti-Gazte taldeko kideek bakarrik osatu dituzte (emakumezkoak, 500 kg-koak, mistoak, 580 kg-koak, eta gizonezkoak, 560 kg-koak eta 600 kg-koak) .
- 23 urtez behetikoen talde mistoa Abadiño, Berriozar eta Ibarako taldeetako kideekin osatu dute.
- 23 urtez azpikoen taldea Abadiño, Antsoain, Berriozar eta Ibarako kirolariekin osatu da.
- Gizonezkoen talde juniorra Antsoain, Berriozar eta Ibarako taldeetako kideekin egin da.

## Talde nafarren emaitzak

Munduko txapelketan lortutako emaitzei dagokienez, **oso nabarmena da Beti-Gazte taldearen parte-hartzea**, bai klubuen arteko txapelketan baita Basque Country selekzioan ere. Lesakako kirolariek 10 domina lortu dituzte, 6 klubuen arteko txapelketan eta 4 nazioartean, Basque Country ordezkatzuz. Hori dela eta, diziplina horretako munduko bertze edozein klubuen gainetik dago Beti-Gazte.

Txapelketa honetan, lesakarek lehen aldiz urrezko domina bana irabazi dute, 500 kg-ko emakumezko senior kategorian eta 580 kg-ko senior mistoan.

Beti-Gazte taldeari begira eta miarrez jarraituz, munduko txapelketan parte hartu duten Nafarroako promesak ere hor daude, bereziki Antsoain eta Berriozar taldekoak, atzendu gabe talde horietan parte hartu duten Amaiur taldeko zenbait kirolari.

Berriozarrek ere lan bikaina egin du munduko txapelduna izan baita Abadiñorekin batera osatutako emakumezkoen zein gizonezkoen 23 urtez azpikoen kategorian eta talde mistoko 4. postuan.

Gazteenen kategorian nabarmendu behar da Antsoaingo taldeen lana; izan ere, urrezko eta zilarrezko dominak irabazi zituzten gizonezkoen eta emakumezkoen junior lehiaketetan, eta brontzezkoa 500 kg-ko 23 urtez behetikoko emakumezkoetan.

Klubuen arteko parte-hartze bikain horretaz gain, Nafarroako gazteek oso emaitza onak lortu zituzten, gizonezkoen junior kategorian urrezko domina bat eta 23 urtez azpikoetan hiru brontze lortuta.

Munduko txapelketa honetatik ondorioztatzen ahal da Euskal Herrian sokatirak momentu gozo bat bizi duela, eta etorkizuna oparoa izaten ahal dela.



**Nafarroako Herri Kirol Federazioa**  
Gindal Ibiltokia, 1 – Behea 31791 SUNBILLA  
Tel: 948 450900 / 622 368428  
[www.herrikirolaknafarroa.org](http://www.herrikirolaknafarroa.org)

## Eranskinak

Euskal Herriko taldeek domina hauek lortu dituzte:

- Kluben arteko txapelketa:
  - Urrea Beti-Gazterentzat 500 kg-ko emakumezkoen senior mailan.
  - Urrea Beti-Gazterentzat 640 kg-ko gizonezkoen senior mailan.
  - Urrea Beti-Gazterentzat 600 kg-ko gizonezkoen senior mailan.
  - Urrea Beti-Gazterentzat 560 kg-ko gizonezkoen senior mailan.
  - Urrea Beti-Gazterentzat 580 kg-ko senior maila mistoan.
  - Urrea Abadiñok eta Berriozarrek osatutako 500 kg-ko 23 urtez beheitiko emakumezkoen taldearentzat.
  - Urrea Abadiñok eta Berriozarrek osatutako 600 kg-ko 23 urtez beheitiko gizonezkoen taldearentzat.
  - Urrea Antsoaintzat 560 kg-ko gizonezkoen junior mailan.
  - Zilarra Beti-Gazterentzat 540 kg-ko emakumezkoen senior mailan.
  - Zilarra Ibarrentzat 540 kg-ko emakumezkoen senior mailan.
  - Zilarra Abadiñoko 560 kg-ko 23 urtez beheitiko talde mistoarentzat.
  - Zilarra Antsoaintzat 480 kg-ko emakumezkoen junior mailan.
  - Brontzea Antsoaintzat 500 kg-ko 23 urtez beheitiko emakumezkoen mailan.
- Seleksioen txapelketa
  - Urrea 580 kg-ko seniorren talde mistoarentzat.
  - Brontzea 540 kg-ko emakumezkoen senior taldearentzat.
  - Brontzea 500 kg-ko emakumezkoen senior taldearentzat.
  - Zilarra 600 kg-ko gizonezkoen senior taldearentzat.
  - Brontzea 560 kg-ko gizonezkoen senior taldearentzat.
  - Brontzea 600 kg-ko 23 urtez beheitiko gizonezkoen taldearentzat.
  - Brontzea 500 kg-ko 23 urtez beheitiko emakumezkoen taldearentzat.
  - Brontzea 560 kg-ko 23 urtez beheitiko talde mistoarentzat.
  - Urrea 560 kg-ko gizonezkoen talde juniorrentzat.

Honako talde hauek parte hartu dute:

- ElitarGymnasium (Azerbaijan)
- Abadiño, Antsoain, Berriozar, Beti Gazte eta Ibarra (Basque Country).
- ChinaSteel (Txina)
- Da Ben Niu, JingmeiDaiShiDai, Universidad de Chinese Taipei (Chinese Taipei)
- Ñapurak, Zuraide (Frantzia)
- Clonmany (Irlanda)
- Country Club (Ipar Irlanda)
- Club Figest (Italia)
- SaldusTehnikums (Letonia)
- Deinum/Britsum, Monnickendam, Watermannen (Herbehereak)
- Loftadalen, Stenungsund (Suedia)